

**GURE AXOLAGABEKERIAK
AHANZTURARA
KONDENATZEN DITU**

**ETA ZUK...
ZER JATEN DUZU?
DENETARIK?
BOTA EGITEN DUZU JANARIA?**

Haur eta familientzako
jardueren koaderno

Borondatezko barauaren eguna
2022ko otsailaren 11, ostirala

Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala
2022ko otsailaren 13a, igandea

LAGUNDU ZAKEORI

Zakeo zerga-biltzailea zuhaitz batera igo zen Jesus hobeto ikusteko. Jesusek, Zakeo ikusi zuenean, zuhaitzetik jaisteko esan zion. Baina Zakeorentzat zaila zen zuhaitzetik jaistea. Jesus "ikus" ahal izateko, Jesusen irakasbideei jarraitu behar zion, eta beste jendeari sortzen zizkion desberdinkeriak gainditu behar zituen.

Ze desberdinkeria gainditu behar ditu Zakeok Jesusekin egon ahal izateko? Egin diezaiozun eskailera bat, eta erakuts diezaiozun zerk lagunduko dion zuhaitzetik jaisten.



A. Bilatu erantzunak. Erantzunak aurkitzen dituzunean, idatzi eskailera mailetan, eta zuhaitzetik jaisten lagunduko diozu Zakeori, Jesus besarkatzera joan dadin.



B. Zakeo gizaki hobea bihurtzen da gizon-emakumeen arteko berdintasunaren alde zerbait egiten duen bakoitzean. Jolasak bukatutakoan, **margotu marrazkia.**

IGARKIZUNA

Asmatzen baduzu, Zakeok Jesus besarkatzeko gainditu beharreko azken eragozpena zein den jakingo duzu.

Denok nahi dugu hori eduki, ondo egoteko.

Gaixotzen garenean, denok berreskuratu nahi dugu. Segun eta non bizi zaren, beharbada ez duzu lortuko. Zer da?

KONPROMISOAK

- ❖ Katekesian eta ikastolan adi egotea eta ikasle ona izaten ahalegintzea.
- ❖ Gustatzen ez zaidan janariren bat jartzen didatenean, eskerrak ematea eta txintxo jatea.
- ❖ Jainkoari eskerrak ematea sendagileak, erizainak, sendagaiak, ospitaleak eta abar dauzkagulako, eta halakorik ez dutenei laguntzea.



HITZ EZKUTUA

Jarri zenbaki bakoitzaren azpian alfabetoan dagokion hizkia, eta Zakeok gainditu beharreko beste desberdinkeria bat aurkituko duzu.

10	1	14	1	19	9	1



GARIZUMAKO OTOITZAK

Martxoaren 6a: Garizumako 1. igandea

Jesus, lagundu gure tentaldiak zein diren jakiten eta zugandik urruntzen gaituzten gauzak bereizten. Erakutsi egunero otoitz egiten eta zure Hitzaren bidez esaten diguzun guztia entzuten, jakin dezagun zure Erreinua eraikitzen, lagun hurkoaren beharrak ikusten, eta inguruan dauzkagun desberdinkeriak gainditzeko.

Martxoaren 13a: Garizumako 2. igandea


Jesus, lagundu otoitz egiten, zugandik gertu egon gaitezen. Lagundu gure ondoan zaudela ikusten, beti pozik egon gaitezen. Eta poz hori inguruan ditugunengana zabal dezagula, lagun onak izan gaitezen eta zoriontsu egin ditzagun. Ez ditzagun ahaztu urruti daudenak, haiek ere behar baitute gure laguntza.

Martxoaren 20a: Garizumako 3. igandea

Jesus, lagundu gure bihotza hobetzen, maitasunezko fruituak eman ditzan. Izan pazientzia gurekin. Garizuma honetan, baztertu egin nahi dugu zugandik aldentzen gaituen guztia (etsipena, harrokeria, alferkeria...). Alaitasunez izan nahi dugu zure zerbitzari. Gure inguruan bakea ereiteko gai izan gaitzela.

CRUCIGRAMA

- 1- Organización católica que lucha contra las desigualdades en los países empobrecidos (dos palabras).
- 2- Lo que predica Jesús y el mundo necesita.
- 3- Protagonista de nuestra historia al que ayudamos.
- 4- Tema central de la campaña de Manos Unidas en 2022.
- 5- Tiempo de cuarenta días antes de Semana Santa.
- 6- Luchar contra ella es la misión de Manos Unidas.
- 7- Es muy importante para acabar con la desigualdad.
- 8- Lo que hacen los actores.
- 9- Se da cuando todas las personas tienen las mismas oportunidades para vivir.



PALABRA SECRETA

Mahaia bedekatzeko

Bedeinkatu, Jauna, hartzera goazen elikagai hauek.

Indarra eman diezagutela besteei laguntzeko. Eskerrik asko janaria prestatu dutenei.

Ez ditzagula ahaztu goseak daudenak eta behar larriak dituztenak, eta eskerrik asko horrelako jendeari laguntzen dioten gizon-emakumeak daudelako.



ERANTZUNAK: 1. Manos Unidas 2. Amor 3. Zaqueo 4. Desigualdad 5. Cuarentena 6. Pobreza 7. Formación 8. Actuar 9. Igualdad. Palabra secreta: EDUCACIÓN. Hitz ezkutua: JANARIA. Igarbizuna: OSASUNA.

Martxoaren 27a: Garizumako 4. igandea

Jesus, erakutsi besteen arazoak ikusten eta elkartasunez jokatzeko, bakeak egiten eta barkatzen. Beti izan gaitzela ongile eta bakegile. Batzuk bakarrik eta triste daude; lagundu haiengana hurbiltzen eta itxaropena ematen. Eskerrik asko halakoak zaintzen dituztenak daudelako.

Apirilaren 3a: Garizumako 5. igandea

Jesus, lagundu zuk behatzen duzun bezala behatzen, inolako aurreiritzirik gabe. Ez dezagula inor epaitu, gutxietsi edo mespretxatu, eta ez dezagula inoren aurka gezurrik esan. Izan gaitzela zu bezain ulerkor eta atseginak. Denok dauzkagu gure gauza onak. Lagundu besteengan dagoen ona zuk bezala ikusten.

Apirilaren 10a: Erramu-igandea

Jauna, Jerusalem sartu ziren egunean, herritar guztiak aleluia! oihukatzen ari zirela, asko poztu ginen gu ere. Goretsi egiten dugu Jainko Jauna, mundura bidali zintuelako. Goretsi egiten zaitugu Zu, zure maitasunagatik. Eta goretsi egiten dugu Espiritu Santua, indarra ematen digulako zure jarraitzaile izan gaitzen. Zure maitasuna, justizia eta bakea gudan hazi daitezela eta inguruan zabal ditzagula.

ELKARTASUNAREN ADIBIDEAK

Kanbodia: HEZKUNTZA izateko eskubidea



Nik **Suy** dut izena. Zuhurtzia esan nahi du. Kanbodiaren iparraldean bizi naiz. Kanbodia oso herrialde polita da; Asiaren hego-ekialdean dago. Nire familia behartsua da, gerra baten ondorioz beste leku batera joan behar izan zuelako. Ez dauka dirurik ikasketak egiteko behar dudan materiala erosteko. Orain, Manos Unidasi eta beste erakunde batzuei esker, Kanbodiako 5.000 haur baino gehiagok liburuak eta koadernoak dauzkagu.

Zuri gustatzen al zaizu ikastolara joatea? Ze material eramaten duzu? Nola lortzen dituzu?

Etiopia: ELIKAGIAK izateko eskubidea



Ni **Melkam** naiz eta Etiopiaren hegoaldean bizi naiz. Etiopia Afrikaren ekialdean dago. Lehortearen ondorioz, hemengo lurrak ez dira emankorrak eta goseak egoten gara. Horregatik, gure eskualdeko Elizak laguntza eskatu dio Manos Unidasi, laguntza eman diezagun lurra lantzeko, haziak ereiteko, eta nekazaritzako eta abelazkuntzako teknikarik onenak erakusteko. Horrela, nire familiak eta eskualdeko gainerakoek urte osoan izango dugu janaria.

**Inoiz izan al zara gose?
Zer egiten duzu janaria gustatzen ez zaizunean?
Eta sobera gelditu zaizun janariarekin?**

(Janaria botatzeak kaltetu egiten du ingurumena eta lehortea sortzen du)

Peru: OSASUNA izateko eskubidea



Nire izena **Flor María** da, eta Perun bizi naiz, Yurimaguas izeneko auzo batean. Peru Hegoamerikako mendebaldean dago. Nire auzoko jendea oso behartsua da. Aldakako arazo batekin jaio nintzen eta ezin izan zidaten konpondu, sendagilerik ez zegoelako. Orain, Manos Unidasen laguntzari esker, hiriburura joan naiz, Limara, eta han ebakuntza egin didate. Gainera, errehabilitazioa eta fisioterapia ere izango ditut, ikastolara joan eta lagunekin jolastu ahal izateko.

**Zer egiten duzu gaixo zaudenean?
Nork laguntzen dizu sendatzen?
Egin al dizute inoiz ebakuntzarik?**